



HEZKUNTZAKO SAILBURUAREN AGINDUAREKIN BAT DATORREN DOKUMENTUA, ZEINAREN BIDEZ AURRETIKO KONTSULTA EGITEN BAITA XEDAPEN OROKOR BAT EGITEKO, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FUNTS PUBLIKOEN BIDEZ LAGUNDUTAKO UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTETXEETAKO IRAKASLEEI IRAKASKUNTZAKO GAITASUN DIGITALA EGIAZTATZEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUENA.

2022ko uztailaren 15ean EHAAan argitaratu zen 6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena. Bertan, testu artikulatu oso bakar batean sartzen eta integratzen dira xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko arau guztiak, eta orain arte indarrean zegoen Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legea ordezkatzeko du.

Zehazki 11 artikuluan Aldez aurretiko kontsulta herritarrei hau zehazten da:

1. Xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak, testu juridiko arauemaileen proposamenak idatzi baino lehen, kontsulta publikoaren bidez bilduko du gizarteak duen iritzia. Herritarrei zuzendutako aldez aurretiko kontsulta-izapide horretan, beharrezko neurriak hartuko dira, ziurtatzeko, batetik, gizon eta emakumeen ordezkaritza orekatua, eta, bestetik, arautzekoa den alorrean edo sektorean berdintasuna bultzatzen duten elkarteen parte-hartzea. Halaber, hizkuntza-eskubideak errespetatuko zaizkio aldez aurretiko kontsultetan parte hartzen duen orori, Administrazio langile zein herritarra izan.
2. Aldez aurretiko kontsulta kapitulu honetan araututako prestaketa-fasean sartzen da. Izan ere, herritarrekiko interakzio izapidea da, zeina halako molde egingo baita, non xedapenaren hartzaile izan daitezkeen pertsona guztiek aukera izango duten iritzia emateko, behar besteko epean, berau hamabost egun baino gutxiagokoa izan gabe, eta testu juridiko jakin bat onartu baino lehen.
3. Aldez aurretiko kontsultaren izapidea xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen zuzendaritza-zentro edo -organoak bete ahal izango du, iragarkia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan jarrita. Alderdi hauekin lotutako informazioa iragarriko da: araua onestearen premia eta egokitasuna, arauaren xedeak, ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak; eta herritarrei gonbidapena egingo zaie iragarritako informazioari buruzko iritzia eman dezaten.
4. Artikulu honetan aurreikusitako herritarren parte-hartzearen eskakizuna betetzat jo dezake testu juridiko arauemaile bat aldez aurretik onetsi ondorengo araugintza-prozedurako instrukzio-faseko entzunaldi eta informazio publikoaren izapideak. Memorian horrela jasota utzi beharko da, hala bada.

Hezkuntza Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko funts publikoaren bidez lagundutako unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako irakasleei irakaskuntzako gaitasun digitala egiaztatze

prozedura arautzen duen Hezkuntza sailburuaren AGINDUAREN proiektua prestatzen hasteko asmoa du.

Aipatutako 6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarenarekin bat etorritik, eta herritarrek arauak egiteko prozeduran parte har dezaten bultzatze aldera, arau-proiektua egin aurretik, jendaurreko kontsultarako aldi bat irekitzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren web atariaren bidez, herritarren eta etorkizuneko arauaren eragina jasan dezaketen erakunde adierazgarrien iritzia jaso ahal izateko, honako gai hauei buruz:

1.- Ekimenaren bidez arautu nahi diren alderdiak.

Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Planak (2022-2024) esparru berri bat bultzatu nahi du berrikuntza pedagogikorako palanka gisa, trebetasun digitalak garatzeko oinarriak sendotuko dituena, integrazio efektiboaren eta teknologien erabilera egokiaren bidez. Plan horrek, beraz, irakasleen irakaskuntza-praktiketan teknologia berrien erabilera modu normalizatuan txertatzen lagundu behar du, komunikazioa, parte-hartzea eta ikaskuntza erraztuko duten metodologiak bitartez. Hori lortzeko, Planak honako ekintza-mugarri hauek jasotzen ditu: alde batetik, "Irakaskuntzarako gaitasun digitala aitortzeko eredu diseinatzea", prestakuntza-ibilbideei lotutako ziurtapen- eta egiaztapen-mekanismoak definituz; eta, bestetik, "Irakaskuntza-jarduerarako beharrezkoa den gaitasun-maila bermatzea irakaskuntza-funtzioan sartzen diren prozedura berrietan", bi ekintzaren bidez: lehiaketa publikoetarako gaitasun digitala ebaluatze mekanismoak diseinatzea eta sartzea.

Ebaluazio eta Lurralde Lankidetzaren Zuzendaritzaren 2022ko uztailaren 1eko Ebazpenak, "Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren Akordioa, irakaskuntzako gaitasun digitala ziurtatzeari, egiaztatzeari eta aitortzeari buruzkoa" argitaratzen duenak, ezartzen du autonomia-erkidegoek eta Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak, besteak beste, honako puntu hauek adosten dituztela:

- Irakaskuntzako Gaitasun Digitalaren Erreferentzia Esparruan jasotako irakaskuntzako gaitasun digitalaren mailak egiaztatze prozedurak ezartzea.
- Baliokidetzat jotzea eta, beraz, hezkuntza-administrazio guztiek baliokidetzat hartzea irakaskuntzako gaitasun digitaleko egiaztapenak, I. eranskinean ezarritako prozeduretan oinarrituta badaude.
- I. eranskinean jasotako prozedurak akordio komun gisa erabiltzea irakaskuntzako gaitasun digitalaren mailak egiaztatze eta aitortzeko, hezkuntza-administrazioek beren eskumenen esparruan zehazten dutenaren arabera.
- Hezkuntza-administrazioetako unitateak arduratuko dira irakaskuntzako gaitasun digitalaren egiaztagirak emateaz.
- Hezkuntza-administrazioen unitateak arduratuko dira, beren eskumenen esparruan, irakaskuntzako gaitasun digitalaren egiaztapena arautzen duen araudia onartzeaz, Erabaki honetan jasotako baldintzetan, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik urtebeteko epean.

2.- Proiektatutako erregulazioaren beharra.

Ebaluazioko eta Lurralde Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiaren 2022ko maiatzaren 4ko Ebazpenaren bidez, "Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren Erabakia, irakaskuntzako gaitasun digitalaren erreferentzia-esparrua eguneratzen duena" argitaratu zen.

Halaber, Ebaluazioko eta Lurralde Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiaren 2022ko uztailaren 1eko Ebazpenak, "Irakaskuntzako gaitasun digitala ziurtatu, egiaztatu eta aitortzeko buruzko Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren Erabakia" argitaratzen duenak, seigarren puntuan ezartzen du hezkuntza-administrazioetako unitateak arduratuko direla, beren eskumenen esparruan, irakaskuntzako gaitasun digitala egiaztatzeko araudia onartzeaz, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik urtebeteko epean. Agindu horren arabera, arau-garapena dagokion hezkuntza-administrazioak emandako ebazpen honek irakaskuntzako gaitasun digitala egiaztatzeko prozedura arautzen du.

3.- Arauaren helburuak.

Agindu honen xedea Euskal Autonomia Erkidegoko funts publikoen bidez lagundutako unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako irakasleei irakaskuntzako gaitasun digitala egiaztatzeko prozedura arautzea da, Hezkuntzako Konferentzia Sektorialak irakaskuntzarako gaitasun digitala ziurtatzeari, egiaztatzeari eta aitortzeko buruz hartutako Akordioan hezkuntza-administrazioek adostutako oinarritzko printzipio komunak arabera, 2022ko uztailaren 12ko BOEn argitaratua.

Aginduak gaitasun digital hori egiaztatzeko bi prozedura ezartzen ditu: ofizioz egiaztatzeko prozedura; eta Hezkuntza Sailaren deialdi publikoen bidezko prozedura, Administrazioak erabili beharreko egiaztapen-modalitatea edo -modalitateak zehaztuko duenak, Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren 2022ko ekainaren 23ko Erabakiaren bidez onartutakoaren arabera, irakaskuntzako gaitasun digitala ziurtatzeari, egiaztatzeari eta aitortzeko buruzkoak, eta agindu honen I. eranskinean jasota daudenak.

Agindu honen hartzaileak Euskal Autonomia Erkidegoan, Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, araututako irakaskuntzak, funts publikoekin sostengatutako zentru batean, irakasten duten edo irakatsi izan duten irakasleak dira.

Horregatik guztiagatik, kontsulta:

- Etorkizuneko arau-erregulazio horrek eragin diezaiekeen erakunde publiko eta pertsona fisiko guztiei irekitzen zaie, bai eta erakunde, entitate edo elkarteei ere.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuko da, Legegunean eta Irekian.
- Hamabost egun balioduneko epea ezarriko da eragina izan dezaketen erakundeek, herritarrek eta haien erakundeek egoki iritzitako iradokizun edo ohar guztiak aurkez ditzaten.

Kontsulta publikoaren izapide hori da, beraz, une honetan egiten dena, aurreikusitako lege-eskemari jarraituz. Horrez gain, arau-proiektua egin aurretik egiten da, Xedapen Orokorrak



Egiteko Prozeduraren ekainaren 30ko 6/2022 Legearen 12. eta 13. artikuluek arautzen duten hasiera fasearen barruan.

71/2021 Dekretuak, otsailaren 23koak, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak ematen dizkidan eskumenak baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehena. - Aurretiazko kontsulta publikoko izapidea ezartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko funts publikoen bidez lagundutako unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako irakasleei irakaskuntzako gaitasun digitala egiaztatzeko prozedura arautzen duen xedapen orokor baten proiektua.

Bigarrena. - Arauaren eragina jasaten duten herritarrek eta erakundeek, hala baderitzote, Agindu honetan planteatutako alderdiei buruzko iritzia helarazteko aukera izango dute hamabost egun balioduneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web atarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria- Gasteizen, sinaduran zehazten den datan

Jokin Bildarratz Sorron
HEZKUNTZA SAILBURUA